



Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a

Bildutakoak:

Aitor Lukas Solano	Hernaniko Udaletik
Pepe Iparraguirre Balda	Lehendakariordea eta
	Andoingo Udaletik
Iratxe Begiristain Otegi	Usurbilgo Udaletik
Nuria Fernandez Castrillo	Lasarte-Oriako Udaletik
Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragako Udaletik

Akta Zenbakia 0000006
Eguna 2024/05/13
Iraupena -

Asistentzia teknikoa:

Julen Mungia	Idazkari-Kontuhartzailea
Gorrotxategi	
Helene del Río Laboa	Zuzendaria

Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

Jorge Segurado Iriondo	Urnietako Udaletik
-------------------------------	---------------------------

Gai Zerrenda

- | | |
|---|---|
| 1.- 2024/04/29(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 29/04/2024. |
| 2.- Mankomunitaterako ondoko bulegoa (202) alokatzeko proposamena aurkeztea | 2.- Presentar la propuesta para alquilar la oficina contigua (202) para la Mancomunidad |
| 3.- Laneratze-enpresa modu bateratuan kontratatzeko pleguak onartzea | 3.- Aprobar los pliegos para la contratación conjunta de la empresa de inserción |
| 4.- Mankomunitateko egitasmoen eguneraketa | 4.- Actualización de los programas de la Mancomunidad |
| 5.- Eskualdeko hurrengo mahaien datak proposatzea | 5.- Propuesta de las próximas mesas comarcales |
| 6.- Udaletako baliabideen erabileraren inguruko hausnarketa | 6.- Reflexión sobre la utilización por parte de la Mancomunidad de los recursos de los Ayuntamientos. |
| 7.- Galdera, erregu eta proposamenak. | 7.- Ruegos, preguntas y propuestas. |

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakariordea eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a**

1.- 2024/04/29(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/04/29 datako batzaraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariordeak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak ontzat eman du, Usurbil, Andoain, Lasarte-Oria, eta Astigarragaren baiezkoarekin eta Hernaniren abstentzioarekin.

2.- Mankomunitaterako ondoko bulegoa (202) alokatzeko proposamena aurkeztea

Bidalitako txostenetan oinarrituta, partehartzaile guztiek ondo ikusi dute ondoko bulegoa alokatzea. Nahiz eta Lehendakariaren eskumena izan, alde agertu dira.

Honen harira, Astigarragako ordezkariak galdetu du ea beharrezkoa den obra egitea barrutik bulegoak komunikatzeko, edo, bestalde, ez al den nahikoa izango bulegoko atea eta eraikineko pasillo komunitarioa erabiltzea, espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Eraikuntza itxia denez eta komunak kanpoan daudenez ez dirudi arazo bat izan daitekeenik.

Zuzendariak erantzun dio aukera posible bat dela eta aztertuko dugula, oraindik, obraren inguruan ez baita ezer adostu.

3.- Laneratze-enpresa modu bateratuan kontratatzeko pleguak onartzea

Denak, aho batez, puntu hau onartu dute.

Astigarragako ordezkariak galdetu du ea noiz bukatuko den gaur egun indarrean dagoen kontratatua eta idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio urrian izango dela.

4.- Mankomunitateko egitasmoen eguneraketa

Zuzendariak egungo egitasmoen eguneraketa azkar bat egin du:

- Hazinnova: Programa honen gaineko harremanak eta bilerak egiten ari gara enpresekin, egitasmoak bide ona daramala dirudi.
- Ekainean energia formakuntzak/hausnarketak egitea espero da, 1. sektorean, zerbitzuetan eta industrian.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta 2024ko maiatzaren 13a

- Hernaniko digitalizazioak pasata, Astigarragakoak antolatuak daude. Ekainean hasiko dira. Beste herriren batean egin nahi izango balira aukera dago oraindik.
- Beterri Saretuzekin egitasmoen aurkezpena egin nahi da, interesa daukate zertan ari garen ezagutzeko eta elkarlana sustatzeko. Elkarte moduan sortu direnez eskualdeko eragile izango dira eta batzuetan elkarlana egingo dugu eta beste batzuetan eskaerak eta iradokizunak egingo dizkigute gure jarduera edo egitasmoak hobetze aldera. Puntu honetan, Astigarragako ordezkariak galdetu du zer enpresa dauden sartuta eta Zuzendariak erantzun dio, adibidez, Transportes Michelena, Tapuntu...
- Beste batzorderen batean adierazi genuen Eskualdeak egitasmoaren barruan, lerroetako bat enpresetan circular trans tresna erabiltzea izango zela, ekonomia berdea eta jasagarritasuna lantzeko. Tresna aztertuz, aplikatzeko arazoak dituela ikusi dugu eta aldatzeko eskaera egin dugu. Hortaz, karbono aztarna kalkulatzeko ikasteko lanketa egingo dugu enpresekin.
- Hazilan +: otsailean azaldu genuen bezala FSEen bitartez Garapenek EAEko garapen agentzia, mankomunitate, behargintza, etab.-ekin bi egitasmo landu ditu eta eskaera Garapenek berak bideratu du, kudeaketa bere gain hartuz. Bata EnpleGu, Elkar Ekinen oso antzekoa dena, eta bestea Hazilan+. Urtarrilean batzorderik egon ez zenez eta GFAk Elkar Ekinek jarraituko zuela adierazi zigunez Hazilan+-en sartzeko eskaera egin genuen, gaur egun eskaintzen ez ditugun zerbitzuak eskaintzeko aukera ematen zigulako, hau da, egoera zaugarritik kanpo dauden biztanleei beren lan baldintzak hobetu edo kompetentziak lantzeko aukera ematen dien egitasmoa delako. Kudeaketa, hortaz, Garapenek eramango du denon partez Eusko Jaurlaritzaren bitartez. Hortaz, lan horregatik eta komunikazio baliabide bateratuengatik proposamen bat egin digute. Horren aurrean iradokizun desberdinak planteatu dira beste agentzia eta mankomunitateen partetik eta azken proposamenaren zain gaude. Programa plurianuala izango denez (5 urterako aurreikusten da) Gobernu Batzarrak proposamena onartu beharko du, beraz, jaso bezain laster hurrengo batzordera eramango dugu.

5.- Eskualdeko hurrengo mahaien datak proposatzea

Hemen datozen eskualdeko mahaiak noiz eta non izango diren aipatu da:

- Turismo mahaia, maiatzaren 20n, Lasarte-Orian.
- Zaintza mahaia, maiatzaren 27n, Usurbilen egitea proposatzen da.
- Iraunkortasun mahaia, ekainaren 10n, ziurrenik Hernanin izango da baina zehaztear dago. Mahai honetara Udalsarea dinamizatzea etortzea proposatu digute. Hilean behin probintzia bakoitzean mahai edo bileraren batean parte hartzen omen dute, eta beste eskualdeetan egiten diren praktikak azaldu eta

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta 2024ko maiatzaren 13a

eskualdean bertan lanketa egiten dute. Ekainean Gipuzkoa tokatzen zaie eta hutsunea zuten, hortaz, ondo ikusten badugu gure mahaiera etortzea proposatzen dute. Batzarkideek ondo ikusi dute Udal guztiak Udalsarearen bazkide baitira.

Mahai guztiak goizeko 12:30tan izango dira.

Puntu honetan, Lasarte-Oriako ordezkariak protesta egin du, zehazki, Zaintza mahaia nola kudeatzen ari denaren inguruan. Berak dioenez, Mankomunitateko enplegu teknikaria harremanetan jarri zen Lasarte-Oriako teknikariarekin, Zaintzaren inguruan bilera bat egiteko asmoz. Lasarte-Oriak uste du hori egin baino lehen, aurreko Gobernu Batzarreko bilera batean adostu zen bezala, lehendabizi, Gobernu Batzarrean adieraziko dela edozein gairen inguruko eskualdeko mahaia antolatzeke asmoa eta ondoren egingo direla hurrengo pausuak (bilera politiko-tekniko edo tekniko...). Gainera, esan du, hare eta garrantzitsuagoa dela adostutako lanerako prozedura hau errespetatzea zaintzaren inguruan, Mankomunitateko Estatutuen Lehenengo Xedapen Iragakorrean esaten baita gai horretako zerbitzuak ematerakoan, edozein bikoiztasun saihesteko, Mankomunitatea ez dela eremu horretan jarduerak garatzen hasiko, udalerrri bakoitzarekin dagokion hitzarmena siantzen ez den bitartean.

Horregatik, Lasarte-Oriako ordezkariak galdetu zion Mankomunitateko enplegu teknikariari, oraingo bileran, Mankomunitateko Lehendakariari eta idazkari-kontuhartzaitzari eta zuzendaritzari, zer gai landuko diren bilera horietan eta ea kontuan izan al den Lehenengo Xedapen Iragakor hori.

Astigarragako ordezkariak esan du bilera honen asmoa ez dela Zaintzaren inguruan ezer adostea edo mahai politiko-tekniko edo tekniko ordezkatzea, baizik eta helburua dela informazioa biltzea gai honen inguruan, jakitea udalerrriak nola dauden eta zer egiten duten gai honen inguruan, ondoren, Mankomunitateak input guzti horrekin, proposamen bat egin ahal izateko deituko den eskualdeko mahai politiko-teknikoan edo teknikoan.

Halaber, gehitu du Mankomunitateko Estatutuen 5.2.h) atalak diola Mankomunitatearen jardura izango dela *“Plan eta proiektu komunak gauzatzea, gizarte-zerbitzuen arloan prestazio eta zerbitzu komunak eskaintzea”*. Beraz, lanketa honekin bete-betea ari garela Estatutuak errespetatzen.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta 2024ko maiatzaren 13a

Era berean, Astigarragako ordezkariak gehitu du gizarte zerbitzuak arautzen duen araubide eta karta batean aipatzen direla eskualde mailan garatu eta landu beharreko gai batzuk, adibidez aterpetxeak.

Zuzendaria eta Idazkari-kontuhartzailea Astigarragako ordezkariak esan duen bide beretik argumentatu dute, eta berretsi dute Mankomunitateko enplegu teknikariak egin duena ez dela zaintzaren inguruko lanketarekin hastea, baizik eta informazioa bereganatzea, jakiteko zein den gai honen gaur egungo egoera, ondoren, lanketarekin hasi ahal izateko, beste arlo guztiarekin egin den bezala.

Lasarte-Oriako ordezkariak berriro esan du garrantitsua dela adostutako lan metodologia errespetatzea eta lehenik eta behin Gobernu Batzarrera ekarri behar dela gaia horrekin lantzen hasi nahi bada. Gainera, berak jakin nahi izan duena dela zer gai lantzeko asmoa dagoen Mankomunitateko eta Lasarte-Oriako teknikariarekin eta ea kontuan hartu al den Lehenengo Xedapen Iragankorra.

6.- Udaletako baliabideen erabileraren inguruko hausnarketa

Zuzendariak esan du, arrazoi desberdinengatik, udaletako baliabide desberdinak erabiltzeko beharra izango duela Mankomunitateak (batez ere, jende asko bildu behar den bileretan edo formakuntzetan, etab.). Orain arte ez da inongo arazorik egon, baina komenigarria litzateke irizpideak argi izatea, arazorik ez sortzeko. Beraz, adostu nahi duena da irizpide orokor eta bateratu bat, etorkizunean Mankomunitateak beharra izanez gero beste udalerrietako baliabideren bat erabiltzeko, eta jakin nahi du ea zeintzuk izango diren baldintzak eta doan edo kosturen batekin izango den instalakuntzen lagapena (orain arte Mankomunitateak doan erabili izan dituela udalerrien baliabideak gehitu du).

Udalerrien ordezkariak esan dute beraien ordenantzatan ikusi beharko luketeela zer daukaten araututa honen inguruan, eta Astigarragaren kasuan, adibidez, beraien ordenantza hutsune bat dagoela honen inguruan. Hala ere, bere ordezkariak gehitu du beraiek normalean aretoak doan utzi behar dizkigutela ulertzen duela, baina bertako teknikari edo langile baten beharra baldin badago, hori ordaindu behar izaten dela.

Hala ere, udal-ordezkariak gai hau beraien udalean aztertuko dutela esan dute, beren ordenantzatan nola jasota dagoen argitzeko.

Usurbilgo ordezkariak galdetu dio Zuzendariari ea arazorik izan duen honen inguruan eta erantzun dio ezetz, baina teknikoki erreserbaren bat egitean galderak egiten dituztela eta

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta 2024ko maiatzaren 13a

komenigarria dela guk garbi izatea, funtsa duten eta zentzudunak diren erantzunak eman ahal izateko, adostu denaren arabera.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

7.- Galdera, erregu eta proposamenak.

- Zuzendariak Turismoaren gaia mahai gainean jarri du. Aipatu du Behemendirekin urte beteko harremana (gehi luzatzeko beste bat) aurreikusi dela. 2023 amaieran, Gobernu Batzordeak Mankomunitateak turismoaren eskumena bere gain hartu behar zuela adierazi zuen, hortaz, hori egiteko, erabaki bat hartu beharra dagoela adierazi du. Besteren batean esan bezala, GFAk turismoan pertsona bat %100ean izatea eskatzen digu, beraz, Aldundiarentzat eskualdeko turismo erreferente Mankomunitatea izateko turismo lanpostu bat sortu beharko genuke. Hori dela eta, ekainaren 17an egingo den Batzar Nagusira proposamena eramango da lanpostuen zerrendaren inguruko erabakia hartu dezaten. Izan ere, eskumena gure gain hartu nahi badugu urtarrilaren 1ean langilea izan beharko genuke, beraz, epe aldetik egingarria da oraindik, baina ezin gara asko luzatu. Bestalde, antolatze aldera ere Behemendiren eskemarekin jarraituko dugun edo hurrengo urtean turismoa gure gain hartuko dugun jakitea komenigarria iruditzen zaigu. GFAk eskualdeko turismo ordezkariari hitzarmen bitartez urtero 50.000 euro ematen dizkie. Oraingoz, beste departamentu batzuek ez bezala, ez dituzte proiektu zehatzak finantzatzen, diru kopuru hori turismo pertsonal eta ekintzetarako ematen dute orokorrean. Baliteke etorkizunean sistema aldatzea, baina oraingoz horrela da, hortaz, turismoa gure gain hartuko bagenu 50.000 euro horiek Mankomunitatearentzat izango lirateke.
- Aurreko puntuaren harira, idazkari-kontuhartzaileak gehitu du aurten Lan-Eskaintza Publikoa (LEP) argitartu behar dugula. Gainera, Lanpostuen Zerrendan aldaketa batzuk egin behar direla gehitu du bertako edukia legedira hobeto egokitzeko, hain zuzen ere, Zuzendariaren eta teknikarien lanposturako eskatzen den titulazioan eta Idazkari-kontuhartzailearen azpitaldean. Bestalde, Plantilla Organikoan nahi gabe egindako akats bat zuzendu behar da, izan ere, inongo arrazoirik gabeko errore bat agertzen da Enpresa Teknikariaren kasuan, bi pertsona agertu beharrean bat bakarrik agertzen da.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a**

- Lasarte-Oriako ordezkariak eskari bat du, eta esan du, ahal den heinean, mesedez, bileretarako dokumentazioa denbora gehiagorekin bidaltzea. Estatutuetan 3 egun balioduneko epea jartzen duela horretarako. Idazkari-Kontuhartzaileak erantzun dio aurreko bileran Lasarte-Oriatik erregu hau plazaratu zela eta horregatik, adibidez, bilera honetarako, ahalegindu garea eta dokumentazioa normalean baino egun bat lehenago bidali dela (asteartean) eta 3. puntuan onartu diren pleguak astelehenean bidali zirela. Zuzendariak gehitu du, azkenean, bi asteroz behin elkartzen garea eta orduan astebeteko epearekin bidaltzen badugu dokumentazioa, ia-ia denborarik gabe gelditzen garea ezer lantzeko eta hurrengo deialdian sartzeko. Astigarragako ordezkariak esan du oraingo maiztasunarekin zaila dela, baina, agian datorren urtean, maiztasun gutxiagorekin elkartzen bagara, seguraski dokumentazioa denbora gehiagorekin iritsiko zaiela.
- Usurbilgo ordezkariak mesedez eskatu du Mankomunitateko eragileen eta sarearen harremanen eskema bat egitea eta jasotzea, bere lehenengo agintaldia denez, asko lagunduko diolako gaiak eta egoera argitzeko. Zuzendariak eskatzen duena zaila dela esan du, baina, hala ere, saiatuko dela zerbait prestatzen.
- Idazkari-kontuhartzaileak egoera baliatu du gogoratzeko 2024ko udalen lehen ekarpenaren eskaera egin zela, eta, oraingoan, bakarrik, Astigarragak, Hernanik eta Usurbilek ordaindu dutela. Hortaz, Andoain, Lasarte-Oria eta Urnieta falta direla. Gainera, esan du, diruzaintza arazoak ekiditeko, ekainean 2024ko bigarren ekarpena eskatuko zaiela.
- Azkenik, Zuzendariak adierazi die Mankomunitaterako enpresa-teknikaria lotzea lortu dela geneukan lanpoltsaren bitartez. Jone Espilla izena duela eta maiatzaren 23an hasiko dela gurekin lanean.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariordeak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 13:22 minutu zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariordeak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakariordea

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a**

8.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 29/04/2024.

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión del 29/04/2024, el Vicepresidente somete a votación su aprobación y la Junta de Gobierno da el visto bueno a la misma, con la aprobación de Astigarraga, Lasarte-Oria, Andoain y Usurbil y la abstención de Hernani.

9.- Presentar la propuesta para alquilar la oficina contigua (202) para la Mancomunidad

En base a los informes remitidos, todos los participantes han valorado positivamente el alquiler de la oficina contigua. Aunque sea competencia de la Presidenta, se muestran favorables.

A este respecto, el representante de Astigarraga pregunta si es necesario realizar la obra comunicando las oficinas desde el interior o si, por otra parte, es suficiente utilizar la puerta de la oficina y el pasillo comunitario del edificio para aprovechar al máximo el espacio. Al tratarse de una construcción cerrada y al estar los aseos fuera no parece que pueda ser un problema.

La Directora contesta que es una opción posible que analizaremos y que todavía no se ha consensuado nada sobre la obra.

10.- Aprobar los pliegos para la contratación conjunta de la empresa de inserción

Todos, por unanimidad, aprueban este punto.

El representante de Astigarraga pregunta cuándo termina el contratado en vigor, a lo que el Secretario-Interventor responde que será en octubre.

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a**

11.- Actualización de los programas de la Mancomunidad

La Directora realiza una rápida actualización de los proyectos actuales:

- Hazinnova: Estamos manteniendo contactos y reuniones con las empresas sobre este programa, parece que vamos por el buen camino.
- Se espera realizar en junio formaciones/reflexiones energéticas en el sector primario, servicios e industria.
- Tras las digitalizaciones de Hernani, las de Astigarraga están organizadas. Comenzarán en junio. Queda la posibilidad de hacerlo en otro municipio.
- Con Beterri Saretuz se pretende realizar una presentación de los proyectos para conocer lo que estamos haciendo y fomentar la colaboración. Al crearse como asociaciones, serán agentes de la comarca y a veces colaboraremos y otras veces nos harán peticiones y sugerencias para mejorar nuestras actividades o proyectos. En este punto el representante de Astigarraga pregunta qué empresas están incluidas y la Directora le contesta, por ejemplo, Transportes Michelena, Tapuntu...
- En otra comisión dijimos que dentro del proyecto Eskualdeak, una de las líneas sería la utilización de la herramienta circular trans en las empresas para trabajar la economía verde y la sostenibilidad. Analizando la herramienta, se han detectado problemas de aplicación y se ha solicitado su modificación. Por lo tanto, trabajaremos con las empresas para aprender a calcular la huella de carbono.
- Hazilan +: tal y como explicamos en febrero Garapen a través del FSE ha desarrollado dos proyectos con agencias de desarrollo, mancomunidades, behargintza, etc. de la CAPV, y la demanda ha sido canalizada desde Garapen, asumiendo la gestión. Una EmpleGu, muy similar a Elkar Ekin y otra Hazilan+. Ante la falta de comisión en el mes de enero, y como nos dijo la DFG que Elkar Ekin continuaría, solicitamos su incorporación a Hazilan +, ya que nos permitía ofrecer servicios que actualmente no ofrecemos, es decir, un proyecto que permite a la población que está fuera de la situación de vulnerabilidad mejorar sus condiciones de trabajo o trabajar sus competencias. La gestión, por tanto, la llevará Garapen a través del Gobierno Vasco. Por tanto, para hacer este trabajo y por los medios de comunicación unificados nos han hecho una propuesta. Ante ello se han planteado diferentes sugerencias por parte de otras agencias y mancomunidades y estamos a la espera de la última propuesta. Dado que se trata de un programa plurianual, previsto para 5 años, la propuesta deberá ser aprobada por la Junta de Gobierno, por lo que en cuanto se reciba se elevará a la siguiente Comisión.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a

12.- Propuesta de las próximas mesas comarcales

Se hace referencia a la fecha y lugar de celebración de las mesas comarcales que se citan a continuación:

- Mesa de Turismo, 20 de mayo, en Lasarte-Oria.
- Se propone que la mesa de cuidado se celebre el 27 de mayo en Usurbil.
- La mesa de sostenibilidad, el 10 de junio, probablemente sea en Hernani, pero está para concretarse. Nos proponen acudir a esta mesa para dinamizar Udalsarea. Dicen que participan una vez al mes en alguna mesa o reunión en cada provincia y explican las prácticas que se realizan en otras comarcas y trabajan en la propia comarca. En junio les toca Gipuzkoa y tenían un hueco, por lo que si lo vemos bien, proponen venir a nuestra mesa. Los junteros y junteras ven bien ya que todos los Ayuntamientos son socios de Udalsarea.

Todas las mesas serán a las 12:30 de la mañana.

En este punto, la representante de Lasarte-Oria protesta sobre cómo se está gestionando la mesa de cuidado. Dice que la técnica de empleo de la Mancomunidad se puso en contacto con el técnico de Lasarte-Oria con el fin de mantener una reunión en torno a al cuidado. Lasarte-Oria considera que antes de hacerlo, tal y como se acordó en una reunión de la Junta de Gobierno anterior, se indicaría en primer lugar en la Junta de Gobierno la intención de organizar una mesa comarcal sobre cualquier tema y que posteriormente se harían los siguientes pasos (reunión político-técnica o técnica...). Además, dice que es más importante que se respete este procedimiento de trabajo acordado en torno al cuidado, ya que en la Disposición Transitoria Primera de los Estatutos de la Mancomunidad se dice que para la prestación de servicios en esta materia, para evitar cualquier duplicidad, la Mancomunidad no va a comenzar a desarrollar actividades en este ámbito en tanto no se establezca el correspondiente convenio con cada municipio.

Es por ello que la representante de Lasarte-Oria preguntó a la técnica de empleo de la Mancomunidad y, hoy en la reunión, a la Presidenta, al Secretario-Interventor y a la Directora de la Mancomunidad, qué temas se van a tratar en estas reuniones y si se puede tener en cuenta esta Disposición Transitoria Primera.

El representante de Astigarraga comenta que la intención de esta reunión no es acordar nada en torno al cuidado o representar a la mesa político-técnica o técnica,

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a

sino que el objetivo es recabar información sobre este tema, conocer cómo están los municipios y qué hacen sobre este tema, para que posteriormente la Mancomunidad, con este input, pueda hacer una propuesta en la mesa político-técnica o técnica comarcal que se convoque.

Añade que el apartado 5.2.h) de los Estatutos de la Mancomunidad señala que la actuación de la Mancomunidad consistirá en "*la ejecución de planes y proyectos comunes, la prestación de prestaciones y servicios comunes en materia de servicios sociales*". Estamos actuando, por tanto, en pleno respeto a los Estatutos.

Asimismo, el representante de Astigarraga añade que en una normativa y carta que regula los servicios sociales se hace referencia a algunos temas a desarrollar y trabajar a nivel comarcal, como, por ejemplo, los albergues.

La Directora y el Secretario-Interventor han ido en la misma línea que ha manifestado el representante de Astigarraga, reiterando que lo que ha hecho la técnica de empleo de la Mancomunidad no es comenzar con la labor de cuidado, sino que lo que se estaba haciendo era recabar la información para conocer cuál es la situación actual de este tema para poder posteriormente comenzar con la elaboración, como se ha hecho con todas las demás áreas.

La representante de Lasarte-Oria insiste en que es muy importante respetar la metodología de trabajo acordada y que primero hay que llevar a la Junta de Gobierno si se quiere empezar a trabajar con este tema. Además, ha querido saber qué temas está previsto que traten la técnica de la Mancomunidad y de Lasarte-Oria y si se ha tenido en cuenta la Disposición Transitoria Primera.

13.- Reflexión sobre la utilización por parte de la Mancomunidad de los recursos de los Ayuntamientos

La Directora dice que por diferentes motivos, la Mancomunidad va a tener que utilizar diferentes recursos municipales (sobre todo en reuniones o formaciones en las que haya que reunir mucha gente, etc.). Hasta ahora no ha habido ningún problema, pero sería conveniente tener claros los criterios para no generar problemas. Por lo tanto, lo que quiere aclarar es un criterio general y unificado, ya que si en un futuro la Mancomunidad necesita utilizar algún recurso de otros municipios, convendría saber cuáles serán las condiciones y si será gratuito o no (ha añadido que hasta ahora la Mancomunidad ha utilizado gratuitamente los recursos de los municipios).

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a

Los representantes de los municipios manifiestan que deberían ver lo que tienen regulado en sus ordenanzas al respecto, y en el caso de Astigarraga, por ejemplo, hay un vacío en su ordenanza al respecto. No obstante, añade su representante que entiende que normalmente ellos nos tienen que dejar las salas gratuitas, pero que si hay necesidad de personal o técnico de las mismas para preparar la instalación, se tiene que pagar.

No obstante, los representantes manifiestan que tratarán este tema en su Ayuntamiento para aclarar cómo está recogido en sus ordenanzas.

La representante de Usurbil pregunta a la Directora si ha tenido algún problema al respecto y responde que no, pero que al hacer alguna reserva algún/as técnicos/as hacen preguntas y que es conveniente que nosotros lo tengamos claro para poder dar respuestas razonadas y sensatas, según se ha acordado.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos

14.- Ruegos, preguntas y propuestas

- La Directora plantea el tema de Turismo. Comenta que con Behemendi está previsto trabajar durante este año (con posibilidad de prórroga por un año adicional). A finales de 2023, la Comisión manifestó que la Mancomunidad debía asumir la competencia de turismo, por lo que considera necesario adoptar una decisión al respecto. Como se ha dicho en otra ocasión, la DFG nos exige tener una persona al 100% en turismo, por lo que deberíamos crear un puesto de trabajo para que la Diputación tenga como referente turístico comarcal la Mancomunidad. Por ello, se trasladará la propuesta a la Asamblea General que se celebrará el día 17 de junio para que decida sobre la relación de puestos de trabajo. Porque si queremos asumir la competencia deberíamos tener un/a trabajador/a el 1 de enero, por lo que todavía tenemos tiempo pero no podemos alargarnos mucho. Por otra parte, nos parece conveniente conocer si seguiremos con el esquema de Behemendi o asumiremos el turismo el próximo año. La DFG entrega vía convenio a los representantes turísticos comarcales 50.000 euros anuales. Por el momento, a diferencia de otros departamentos, no financian proyectos concretos, sino que destinan esta cantidad a personal de turismo y actividades en general. El sistema puede cambiar en el futuro, pero de momento

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a

es así, por lo que si asumiéramos el turismo esos 50.000 euros serían para la mancomunidad.

- Al hilo del punto anterior, el Secretario-Interventor añade que este año tenemos que publicar la Oferta Pública de Empleo (OPE). Añade, además, la necesidad de introducir modificaciones en la Relación de Puestos de Trabajo para una mejor adecuación de su contenido a la legislación en cuanto la titulación exigida para el puesto de Director/a y Técnico/a y en el subgrupo Secretario-Interventor/a (tiene que estar abierto a los subgrupos A1/A2). Por otro lado, debe corregirse un error involuntario en la Plantilla Orgánica, ya que, sin motivo alguno, aparece un error en el caso del/la Técnico/a de Empresa (en lugar de dos personas aparece sólo una).
- La representante de Lasarte-Oria tiene una petición y dice que en la medida de lo posible se envíe la documentación para las reuniones con más tiempo. Que los Estatutos establecen un plazo de 3 días hábiles para ello. El Secretario-Interventor le contesta que en la reunión anterior desde Lasarte-Oria se lanzó esta petición y que por eso, por ejemplo, para esta reunión, hemos enviado la documentación un día antes (martes), antes que lo habitual. Que los pliegos aprobados en el punto 3 se enviaron el lunes. La Directora añade que al final nos reunimos cada dos semanas y si enviamos la documentación con una semana de plazo, nos quedamos casi sin tiempo para trabajar e incorporar lo trabajado en la próxima convocatoria. El representante de Astigarraga comenta que con la frecuencia actual es difícil, pero que si quizás el año que viene nos reunimos con menos frecuencia, seguramente la documentación les llegará con más tiempo.
- La representante de Usurbil solicita que se elabore y recoja un esquema de relaciones de agentes y red de la Mancomunidad, ya que al ser su primer mandato le ayudará a aclarar cuestiones y la situación. La Directora dice que lo que pide es difícil pero que, sin embargo, intentará preparar algo.
- El Secretario-Interventor aprovecha la ocasión para recordar que se solicitó la primera aportación de los ayuntamientos de 2024 y que, por el momento, sólo han abonado Astigarraga, Hernani y Usurbil. Por lo tanto, faltan Andoain, Lasarte-Oria y Urnieta. Además, dice que para evitar problemas de tesorería, en junio se les va a pedir la segunda aportación de 2024.
- Por último, la Directora les indica que se ha conseguido atar a la técnica de empresa de la Mancomunidad a través de la bolsa de trabajo que teníamos. Se llama Jone Espilla y el 23 de mayo empezará a trabajar con nosotros.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko maiatzaren 13a

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Vicepresidente levanta la sesión ordinaria a las 13:22 horas. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno del Vicepresidente, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

O.e.,/Vº Bº
Vicepresidente



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010006-akta/acta (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)